# ARRAPALU

GANICH IRATZEDER

-----

## Sukalde bat

| | |
|---|---|
| KALICHTRO | hiruetan hogoi urthe -Etcheko jauna × |
| MARIA | etcheko anderea |
| ANAMARI | Berhogoi urthe,Berrobideko Etcheko anderea |
| MANECH | Anamariren senharra,gizon larria × |
| YENOFA | Berhobideko alaba |
| GANTCHUME NANI | hamabortz urthe × |
| JAUN NOTARIA | aire handiko jaun bat .× |
| | sar athera : Joanes faktura × |

-------------

Maria miska ibili ondoan,bortz liberakoa emaiten dio Kalichtrori .

Kal ( gantchume musukatuz ... / Goraintzi etchekoeri .

Gan Bai osaba ( Kalichtroki eskua hartzen dio eta jestu handi batzuekin bortz liberakoa emaiten )

Gan(fazoinka) Ô, zer pentsatzen duzu ? ez nuen eta beharrik osaba .

Ma (besarka) Adi Gantchume goraintzi amari

Gan Adi osaba eta matanta,eta ikus arte .

- II -

Kal athearí buruz ...
Adi, adi,ilhoba tcharra .
Noiz arte dauzkitet nere izaiteak oro pottaka,pettaka churgatuko ?

Ma Zer nahuzu gaicho haurra ez da haren falta .

Kal Zer diozu ? falta malta eta ichtorio.. igual zait eni,ez duzu uste erhogarri den agur bat eginik holako peza bat guri hartzea ? Ederki pekaturik bildu baititugu guk sos horiek,ez duzu uste erhogarri den ?

Ma(izitua) Errazu berritz .

Kal zertako ez ninduzun beraz mintzatzerat uzten . Sinhetsi bazintut beharko zituen gure etekoak denak iretsi,larrutuko gaituzte larrutuko .

Ma ez ginuen eta jan gabe uzten ahal .

Kal jan gabe jan gabe,merechiko zuen azkenean,ez othe dakigu banazka zertako zaizkigun ikusterat ethortzen ? zakhur egarritu guziak ithurriko alde, zenbeit sos izaki ta ahaide guziak aztaparka eta lausenguka ondotik, a, a, baitazkit nere urhe ,zilar jori jorien begiratzen,ez da hala Mariaño .

Ma bai bai egia diozu,nere Kalichtro .

Not (kanpotik) Hela .. ez da nehor ?

Kal zer debru da hau, ez othe dugu bakerik izanen egun ?Guziek eni oldartzeko hitz harturik heldu othe zauzkitet?

Ma Kalma zaite Kalichtro,kalma zaite .
bai zoazi athera .

ARRAPALU - Lehen zathia

aratsealdeko seiak alderat ..../

- I -

Kalichtro jeririk, Gantchume jaten ari, Maria badabila lanean .

| | |
|---|---|
| Kalichtro | To, To, To, eta nola jin hiz |
| Gantchume | *irripitan osaba |
| Maria | Bainan ez diozu jateko astia ere uzten, jan zak Gantchume beharko duk oraino indar Donibanerat heltzeko |
| Kalichtro | Ba othe da arrainik ? |
| MARIA | Ai gizonaren thema |
| Gan | athunak ematen du polliki |
| kal | To, To, To, emaiten du, to, to, to, aberasten dire berez arraintzaleak ? |
| gan | Bai zorren pagatzeko doia, ez baita bethi arrainik . |
| Kal, | zorren doia, to, to, to, .. to, to, to... |
| gan (chutiturik ) | gan beharko dut naski, berantzen ari da |
| Ma | aski jan othe duk ? |
| GAN | ba, ba matanta ongi naiz |
| Ma (Kalichtrori) | Zer eman behar diot ? |
| Kal | Zer derazazu ? |
| Ma | Bai behar zaio zerbeit eman, berzenez zer pentsatuko dute ? |
| Kal | Nik dakita ? |
| Ma | Errazu ba .. |
| Kal | hogoi sos ?... |
| Ma | ez,... bortz liberako bat bederen |
| kal | bortz libera ?... hobekienik egizu ... |
| Gantchumeri ... | to; to; to, aspaldi zianehintuela ikusi . |
| Gan | Bai uthea orai . |
| Kal | Urthea, to, to, to, eta ama ongi duk ? |
| Gan | bai, bai arras ongi milesker . |
| Kal | hobe, hobe, gaizo Juana, eta hire aita ? |
| Gan | Ongi ere, kechuzko batzuetan bainan . |

An eta atsegabe ikharagarri hori urrundu nahiz egon naiz gogoetan
eta iduritu zait .. behar niola nere anaiari azken oihu bat egin.

Kalichtro harritua

Bai kalichtro, zuri .. badakit ausartegi naizela,bainan holakoetan
nor ez da bere arrebari urrikituko .

Kal bainan ez dezaket nik deus deusik egin zuentzat .
An bai,bai,kalichtro, salbatzen ahal gaitutzu ,Josetek berri hitsak
ditu igortzen eta zu zaitugu ahaide aberats bakharra .
Kal aberats,aberats,erhoaziko nauzue azkenean,ba othe dut aberats baten
itchura ?
An Othoi,ene anaia has hola, badakigu baduzula diru asko .
Kal bai ederki pekaturik .
An Hori baditake,bainan jenden mihietan zikhinduak begine zer uste
duzu garbi egon zintekela,gu alde bat utzirik ?
Kal Alde bat alde bat, berzen faltak pagatu behar othe ditut ?
An Kalichtro, zu hola mintzo. Ez othe dakizu nundik heldu zaukun gaurko
zorigaitza ,zuzen bezala,lagundu bagintutzu,ez ginen ez hortaratuko.
Kal Hamar mila libera

bi eskuak erakutsiz .

Hamar mila gero, eman dauzkitzut ezkontzean .
An bai hamar urthe gube intresez jorituak turnatzekotan .
Kal hola ere ez ~~[illegible]~~ nintuen baitezpada eman behar,
ez zinauzkitzun zor .
An ez zor ? eta nola, Kalichtroidro duk bihotza,idor eta seko,
Bere Aitamen ontasunetan othe du alabak dretchorik ?
Kal larderiaka nahi banuzu guritu ?
Ma kalichtro
Kal Hâ, sinhets nezan,egon ichilik
An Zertako ditutzu ba zure diru horiek guziak .Haurrik ez izaki,
ta ari zare bil eta bil eta ez jakin zertako .
Kalichtrok (irri malzur bat) zuk aitzinatu diruaren turnatzeko baztererat
eman sos bakharrak zuri eman behar eta ez othe dugu izurite
batek zortzi abere buru juan .
Kal(mokorchko) aldi hortan ez ninzen zure ganat atrebitu?Martin Olhategi
eta Jaun achuanta Manechi osoki fida izanez ,zenbeit bururen erosteko
aintzinatu zaukuten behirik gabe ez bakinen gure etchealdean,
bizitzen ahal .
Ma bichtan da .
An geroztikorhoitzen zaizte nola zizaikun Maneh eritu,muthil bat hartu
eta pagatu behar, funtsean ez du balio gure atsegabe guzien
errepikatzea ,badakizkitzue oro nik bezain ontsa,ez sa naski
guk izan ez dugun malurik .
Ma ba, ba gaichoak denetarik izan duzue .
An Izigarrikeri azken huntan zuen ganat ethorri naiz,ez ahal nauzue
deus esperantzaril gabe utziko ?
Kal Bhe,zer uste duzu eskutik eskurat miliuna ematen ahal dautzugula ?
An ez, ez ez dugu miliunaren beharrik,ezkontzeko aintzinatu nindauzki
tzun hamar milatto horiek .
Kal milatto,milatto ... ezanduez dakizula diruaren balioa,zuhurrago
izan bazine .
An ba, ba zuhur izan naiz, eta beharko gu ginen plantan ez baitzen
hain errecht zure hamarmila liberen turnatzea.Kalichtro ez ahal
duzu eskualdun etche bat,zure arrebaren etchea arrotzen eskuterat
utziko,gure etchealdea harturik bor nahiri salduko baitute .
Hitz emadazu zerbeit anaia .
Kal zer uste duzu holako deliberazioneak hoin laster hartzen ahal direla?
An othoi kalichtro .
Kal zuek emaztekiak deusik ez zauzte diruz mintzatzeko,ez da hortan
bihotzik behar,arrazoina ,berzerik ez ...

Kalichtro, Maria, Anamari, Yenofa ..

Ma To, Anamari bere alabarekin, zer diozu ?

An ongi eta zuek ?

Kal(mokor) Hala holachet .

An ez ongichko zare ?

Ma Ez ez, saintsu, Nundik ez duzu nahi Frantzian orai ikusten diren
izigarriekin .

An bai egia .

Kal Ajo, ez has chingulinaka, ai emazteki hojk auhenka hasteko bethi prest
(irriz) a, a, a, jar zite, jar zite ... Gizendu da eta Yenofa

An (alabari so) Bai naski, ez da hoin gaizki, orai xxxxx zenbat kilo
irabazi dituzu ?

Je Ama, gonden urtharriletik hunat bi kilo galdu ditut .

Ma A ....

An khechu) Bainan bisai hobea du halere, Eta zu Kalichtro arras
ongitu zinen ?

KAL bha .. ni bezalakoak ongi ala gaizki hobirat abian .

An ez zare horten oraino ez .

Ma ez zare horten oraino ez .

Ma ez behar ere, Berobidean denak ongi doatzi ?

An A Maria, gaizki, gaizki, eta galdatzen dautazunaz geroz, gure
zorigaitza erranen dautzuetet . hartako ethorria bainaiz ere .

Kal ( bazterarat ) TO .. nunbeitik ere .

An Bai Maria, grinetan bizi gare eta egunetik egunerat gaizkiago
doatzi gure egitekoak oro, gure etche aldea erekarat abain dugu .
Gaichoa .

Kal peningarri da .

An bortz haur izaki eta bizitzekorik gabe ezin egon .

Kal bainan haurrak handitzen ari zaizkutzue .

An, lasterrago handiturik ere zer erran nahi du . Eta hau da izigarrie
na bihar berean nahi gaituzte auzitegorat deithu .
..( ez daitake mintza.. Yenofa ichilik nigarrez )

Ma Ez den izigarri .

Kal bai izigarri .

An Martin Olhategi eta Jaun achuanta ethorri zaizkigu erranez
ez baginitu gure zorrak pagatzen bihar eguerdikotz, auzi handi bat
hasiko zutela Baionan, gure izaite guziez jabetu arte eta gure
Manech preso alchatuko zutela .

Ma zer pena .

Kal pena gaitza

An gaizo xxxxx Manech , egin ahalak egin du eta holakoak adituz
ez dezake nigarra atchik .

Ma gaizo Manech

Kal gaizo gaizoa .

An holakoetan bohotza ez dauke eta ichilik,bainan halere arrazoin frengo emandauzkitzut naski ?
Kal errazu ikusiko dut . Karkulaka aiko naiz,eta zerbeit egiten ahal badut,Manech deithuko dut bihar goizean .
An Milesker Kalichtro,pizten hauzu piska bat,fida naiz zure bihotz onari, eta gure aitamez orhoiturik ez nauzula atsegabetan ...
Kal ba,bha, bha, tartara,gauden hortan gaurkotz .
Ma(yenoferi) Tu vas souvent à Biarritz ?
Ye oh de temps en temps .
An Maria badaki gero eskuara ere ene alabak
ez badiotegu eskuaraz mintzatzeko usaia ematen ahantziko zaiote.
Ma ba,ba egia diozu,peningarri da nola diren bazter guziak kaskointzen .
Kal bhaa, zer erran nahi du, erderaren medioz diru gehiago bilzen ahal bada .
An ( nahi lioke ihardetsi bainan ... ( bon goazen, milesker beraz eta agian lagunduko gaitutzula .
Ye adi ..
Ma Adi izan ongi .

- IV -
Kalichtro, Maria

aphur bat ichilik,Maria kadira tokiz alderatzen,ari delarik Kalichtro pentsaketan .
Ma zer ari zare hola gogoetan .
Kal hitzik ez, ;;; gero vere buruari .
Hamar mila libera, ha, hamar mila libera, ez baita sos bat hori, eutcho, eta denak ondotik ~~ibilki~~ ibilki .
Ma Zer nahuzu,Burhasoen ondorio guzia zuk daukazu, bai zure partea bai
Kal (kechatzen ari) ;. Zer ditutzu astokeri hoik ? Egin ahalak egin aitu othe naiz diru bilzen ,ttut ttuttur guziak oro berzeri emaiteko ?
Ma hori ez dut arraiten,bainan holakotan .
Kal ba,ba,ez kecha, zerbeit eginen dut,bainan ez nezazula narda zure boz mindulin horekin .
Ma zoin zarthua zaren gizona
Kal zer uste duzu eztitzen dutela holako galdek ?
Ma bai halere
Kal oihuz) to, bakea, eta futcho,futcho,zerbeit egin beharko dut bertzenaz herriko jende mende guziek ez dautet bakerik utziko .

BIGARREN ZATHIA

goizeko hamarr k alderat

- I -

goizeko hamarrak alderat

- I -

Kalichtro buruari hazka, lunetak sudur puntan, izkiriatzen ari, Maria lore untzi batekin kanpotik heldu, aphur bat ichilik.

Ma Zer ari zare gizona ? goizetik izkiriatzen.
Kal ez nitaz acholarik izan, nere anidean badakit zer egin.
Ma agian, agian, (bacherategiari buruz )
Kal (nardatua) egon ba ichilik.
Ma (Bacherategian pausatzean bere untzia erortzen zaio ezin eskuratuz) hui, hui, hui,
Kal(luneten gainetik) zer duzu ba oraino ?
Ma izitua) deusik deusik.
Kal (jauzi batez ondort ethoririk ).. Bainan etcheko puska guziak chahutuko dauzkidazu, ez othe duzu kasu ematen ahal, higuin alaina trastea ez berzea.
Ma bainan ez dut deusik hautsi, behazu oraino soa da.
Kal (jantzerat itzuliz) bha ez dakit zer mirakuluz.
Ma ez baduzu ni baino chahutzale handiagorik ?
Kal ahantzi othe zaitzu arraildu duzun pegar handi eder hori.
Ma zer, orai bederatzi urthe flakaturik erortzerat utzi nuen pegar chahar hura, to, orhoitzea ere bada zerbeit, bederatzi urthez gauza bat ?...
Kal bon bon, kasuemazu eta bakea.
MA(loreak bilzen ditu eta hasten da chukatzen.
Kal, tanpez) bainan ez hola thorra, ez eman hain berze indar, zura funditu tuko duzu osoki.
MA zuk behozu ba zure lanari.
Kal a, gaichoa, huruski hor bainaiz, berzenaz.

- II -

Kalichtro, Maria, Nañi

Na "ela egun on jaun andereak.
Ma bai hiri ere Nani
Na zenbat ogi ?
Ma usaian bezala.
Na astea bururatua da.
Kal to, to, to bururatua.
Na bai akhabo dela.
Kal akhabo, to, to, to,
Na zertako egiten duzu bethi to, to, to
Kal to, to, to, egiten dut ? to, to, to, hiruak irriz.
Na errazu jauna ez dut astirik, ganden asteko ogiak pagatu behar daiztatzu.
Kal zer jada ? egia astelehena dugu, eta egun
Na alo nun bizi zare ?
Kal ekar zadazu moltsa Maria.
mariak ekarzen dio.
Kal zenbet egiten du beraz.
Na Hamar libera, eta hamasei sos.
Kal segur haiz.
Na zer uste duzu ez dakitala kondatzen.
Kal ba, ba, (moltsari miaka
huna bortz libera, sei, zazpi, bederatzi, hamar eta zenbat sos ?

Na (erne ernea) hamasei sos,eta ahantzi duzun hogoi sosekoa .
Kal (berriz miaka eta) Hamar sos hamabortz,hamasei,horra,adi Nani,
ez da deus berriagorik ?
Na eta hogoi sosekoa ?
Kal zer ? bainan chuchen da kondua .
Na aldi guzietan komedia bera,bortz sei,zazpi,libera,hamar,hamabortz,
hamasei sos .
Kal zahartzen ari naiz haurra .
hogoi sosekoa emaiten dio .
Na adi .
Ma adi Nani
Na ehu,ehu, harrapalu .

- III -

Kalichtro,Maria

Kal mukutzua ez berzea
Ma zertako ez berehala eman,zertako hain berze ziminokeria .
Kal hainberze goistaia dena uste duzu bihotz minik gabe largatzen
ahal den .
Ma bo ..
Kal izkirio hau akhabatu behar dut,jaun notaria eta Manech ethorri gabe
Ma Ba Manech ez duzu oraino hemen .
Kal bainan jaun notaria ez bide da urrun .
Kal eup Maria zer duzu bazkariteko .
Ma zer egin behar da ?
Kal egun langile bat dugunaz gainean,egizu zerbeit jateko pizu,
ainitz jan gabe asetzen ~~dunnak~~ duten hetarik .
Ma patata saltsa eginen dut beraz .
Kal bai hori da .
bere izkorioari beha dago
gero kanpoari
Kal to, Jaun notaria .
Ma kanporat abiatuz ) ;; a uzten zaituztet
Kal bai hobe da .

-IV -

Kalichtro,Jaun notaria,Maria iztan bat

No potchada ederrean,dena ziminokerinathea jo ...
Agur,etcheko anderea .
Ma Sar zaite Jauna
No eskua unkiz) :: agur etcheko jauna,beranduchegi heldu niz,
naski, bainan nere beribilak, ez zuen nekokez ere aintziMnatu nahi
Kal ba, ez dire hamar orenak oraino,jar zaite ,othoi ,jauna .
No chapelaz,kartableaz,zer nahi manera eginez jartzeko
Zure osagarria azkar ,on eta pizkor senditzeko atsegina ba othe duzu
egun,Kalichtro jauna
Kal errazu jauna badautzut galde bat egin beharra
No A ,
Kal zure ustez zer balio du Berhobideko etchealdeak .
No Manech zure iloba jaunarena ?
Kl bai,
No, nere arabera ,nere ustez nahiago baduzu,hiruzpalau ehun mila libera
Kal hainberze ?
No ba, ba jauna,bederen hituzpalau,mila liberaz goiti .
Kal gero erranen dautzut zer egin nahi dutan .
mahian jarzen da ) == ean zer den berriagorik ?

No	huna galdetu zinautan bilduma .

chutitzen da, chapela kadiraren gainean ezarzen du,
kertablea zabalzen, izkirio bat atheratzen eta irakurtzen.

No	Etchidorreko Kalichtro jaunaren diruak oro batetarat ditut eta zin eg
eginik lekuko naiz, gaineko jaun horren izaiteak egiten duela
orotarat miliun bat .sei ehun mila eta hiruetan hogoi ta hamasei
libera eta hamabi sos .Azpi huntan nere izena dutan nik, mila bederatż
ehun eta berhogoigarren urtheko agorilaren zapian izkiriatua .

Anton lepoluze
herri huntako notaria .

Kal	irrikatuan, bozkariotan,
a, ez banaki nere zaineri gogor egiten, besarka zintzakiat
bainan kasu emadazu izkirio hori norbeitek ikus beldurrez .

No	Badauzkitzut ere hogoi ta bi mila libera eman beharrak
andere alargun bati jaz aintzinatuak

Kal	oi zer atsegin paregabekoa, urhea bezain baliosa azre jaun notaria,

- V -

Kalichtro, Jaun notaria, Manech
Kalichtro tarapatan denak gordetzen ditu .

Manech	hela etchekoak ?

Kal	aintzina manech, aintzina .

Ma	A Kalichtro, milesker bihotz bihotzetik ,behar nintuen nere
bortz haurrak haztekorik gabe utzi, desohoreak behar gintuen zapatu,
Anamari gaichoa nigarrez zagon, eta salbatzen gaitutzu,
a ez zait ahantzik .

Kal	kalma, kalma, ez da oraino egina, jar zaite iztan bat .

Ma (jaun notariaz ohartuz ) == Agur jaun notaria .

No (ukurtuz) == agur zuri ere jauna .

jartzen dire jaun notaria chapeleran gainean,
kentzen da, kechu da .

Kal	Huna bada gogoetan aitu naiz, ikertu ditut zure emaztearen
erran guziak eta horra zer athera dutan hortarik .

lunetak emanik irakurzen du .

Lehenbizikorik - erran daut bihotz idor bat naizela, barkatzen diot,
baitakit emazteki baten elhek ez dutela balio hendirik, eta goazen
aintzina .
Bigarrenekorik, erran daut ez zaituztela behin ere lagundu
eta hamar mila libera eman diozkat .

Ma	bainan turnatzekotan .

Kal	bainan eman alainan, ez da egia jaun notaria ?

No	Fonntenebloko ithuriari ~~bezala~~ ura bezala zure ahoari egia dario
Kalichtro jauna .

Kal	Hirurgarrenekorik - erran daut zuen auziak desohoratu behar ninduela
ez da egia ,laurgarrenekorik, erran daut bazituela aitamen ontasuneta
dretchoak, barkatzen diot gachtakeri hori ere .
Bortzgarrenekorik, erran daut eskualdun etche bat arrotzen eskuetarat
ez uzteko , ez zezaken ttettelekeri handiagorik erran diruaren
bilzeko ;atheraldi guziek ez dute deus baliorik, halere karkulan
aitu naiz, arrazoin bat ahantzi zaiola eta horri esker naiz zuen
laguntzerat lehiatuko .
Asma zazu zoin den ?Zertako zaiztutet lagunduko ?

Ma	Jaunaren legeak berzen laguntzea manatzen daukulakotz .

Kal	ez, ez ..

Ma (buruari hazka ) == Anamarik ez baitu azkenean doterik izan .
Kal bo,bo,gero eta gaizkiago,holakotan arrazoinaz bertze guziakdeus ez dire,ez da hala jauna ?
No berriz ere derautzut,egiari berari bezala nagokio zure solas nasaieri hurrupaka .
Kal lagunduko zaituztet zuek lagunduz aberasten ahal naizelakotz .
Ma egia aspaldiko errana, emaiteak aberasten du .
Kal Jaun notaria ekhararazi dut .
No zure zerbitzuko jauna .
Kal zure etchea erosiko baitautzut .
Ma zer ? nere etchea erosiko ?
Kal^ bai,preso ez ziten gan .
Ma bainan ez ditutzu hamar mila libera aintzinatu nahi ?
Kal Huna Berhobidea erosiko dautzuet eta bordari gisa hartuko zaitut .
Ma Ba othe ditake,hortarat bortchatuko nauzun .
Kal bortchatuko ez, tratua eginen dugu .
Ma aphur bat ichilik egonik ) == eta gizonaren gizona,eguerdikotz hamar mila libera behar, zertako ez ditutzu garbiki aintzinatu nahi ?
Kal bai duenari orok .• har eta nik ez banitu nere izaiteak zaindu nork zautan dirurik largatuko,ez ez, onhar nere eskaintza edo,
Ma ez den izigarri .
Kal zuen etchea zahartuchea da,eta bordari gisa,atchikitzen zaitudan ber pagatuko dautzut .
Ma ze,bat
Kal Hogoi mila libera,hamar zorren pagatzeko,hamar karitatez .
Ma zer ez zare ahalke gutaz hola baliatzeko,a, ez dut zure ganik sos bat ere nahi, erosle bat eta zuzenagokoa nun nahi hatchemanen dut gizon bihotz gabekoa egia da beraz zikoitz eta harapalu zarela, adi jaun notaria .

gaki da hasare

No harritua (== A .
Kal oihuz Hogoi ta hamar mila libera nahi baduzu .

- VI -

Kalichtro,Jaun notaria, Joanes .

Joanes (agertu gabe) == Menechi deitu .. eup badut zuretako ere zerbeit .
agertzen da letra bat eskainiz .
Agur Jaunak .
huna (kalichtroti emanez ) /
Kal milesker .
letra zarpan emanik jarzen da berriz ere .

- VII -

Kalichtro ,jaun notaria

No Aski ozarra bainitz,banindukezu zerbeit erran beherra,laur ehun mila libera balio dituen etchealde batetako ,hogoi mila edo hogoi ta hamar mila gutichegi zaizkit .
Kal To, dohala laguntza bat eskaini dakotet ez dute onhartu,dohazila nahi duten tokirat,beraz ez da nere falta .
Eskerrik hainitz jaun notaria eta ikus arte .
No Othoi ez ahantz zure andreari nere partez erraitea nere orhoitzapen aphalenak juan gabe uztandiozkatela .
Kal Bai agur,( laguntzen du eta itzulzen da //